GIZARTE SEGURANTZA PRAKTIKAK KOTIZATZEA

benetan garrantzitsuak diren gauzak
lo esencial, lo más importante

Ba al zenekien egindako praktika akademikoengatik kotizatzeko aukera daukazula?
Gaur egun, Gizarte Segurantzan gauden langileok, 38 urte eta 6 hilabete izan behar ditugu kotizatuta 65 urterekin jubilatu ahal izateko.

Baldintza hori bete ezin izateak jubilazio adin efektiboa 67 urtetara atzeratzea darama, horrek dakarren guztiarekin. Tramite honen bitartez kotizatuta daukagun epealdia handitu dezakegu.

Nork berreskuratu ditzake kotizazio urteak?
2024 urte aurretik ordainsaririk jaso gabe praktika akademikoak egin zituztenek edo 2011ko azaroak 1a aurretik, ordainsariren bat jaso zutenen kasuan. Gehienez 5 urte kotizatu daitezke, 1.825 egun.

Zer egin behar da praktikak kotizatzeko?
Gizarte Segurantzarekin hitzarmen berezi bat izapidetu behar da. Hitzarmenean alta emateko sartu esteka honetan: https://labur.eus/Alta_Hitzarmenean

Hitzarmena izendatzerakoan praktikak egin izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko da. Ziurtagiri horrek, norberaren datu pertsonalez gain, honako datu hauek ere jaso behar ditu ezinbestean:

· Praktikak ordainduak izan diren edo ez.
· Praktikaldiaren hasiera eta amaiera data zehatzak.
· Ziurtagiria apirilaren 29ko IGI/386/2024 Aginduan (Orden ISM/386/2024 29 de abril) araututa dagoen Hitzarmen Berezia izapidetzeko ematen dela zehaztu behar da.

Praktiken ziurtagiria unibertsitateen bidez lortuko den kasuetan, ohikoa da unibertsitateak tramitea eta dokumentuan jaso beharreko informazioa ezaguna izatea. Are gehiago, gerta daiteke ziurtagiria eskatzeko bide zehatz bat jasota izatea unibertsitatearen webgunean.

Noiz arte dago eskaera epea irekita?
2028ko abenduak 31 da epemuga tramite hau egiteko.

Zenbat ordaindu behar da kotizazio egun hauek berreskuratzeko?
Praktikak egindako urteetan indarrean zeuden kotizazio oinarriak hartuko dira aintzat ordainketa egiteko. Ideia bat izateko 1980-2006 urte tarteetan egindako praktiken kasuan ordaindu beharreko kopurua hileko 40 eta 140 euro tartean dago.

Ordainketa kolpetik egin beharrean epe ezberdinetan ere zatitu daiteke, gehieneko denbora praktiketan emandako hilabete kopuruaren bikoitza delarik.

Informazio gehiago: https://labur.eus/Praktikak_Kotizatzea

Aktibatu Lortu Zaindu

ELA EUSKAL SINDIKATUA